# III. Atala / Sección III

# Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Administrazioa
# Administración Autonómica del País Vasco

## Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila

### BIZKAIKO LURRALDE ORDEZKARITZA

Espte.: 42-2003

EBAZPENA, 2003ko maiatzaren 27koa, Justizia, Lan eta Gizarte segurantza Saileko Bizkaiko Lurralde Ordezkariarena. Honen bidez ebazten da Bizkaiko Zur-Industriaren sektorearentzako Hitzarmen Kolektiboa erregistro eta argitaratzea. Hitzarmenaren Kodea: 4801475.

*Aurrekariak*

1. 2003ko maiatzaren 9an aurkeztu dira Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzan, 2003ko apirilaren 29ean sinatutako Bizkaiko Zur-Industriaren sektorearentzako Hitzarmen Kolektiboaren testua eta negoziazio-mahaia, ELA, CC.OO., eta LAB sindikatuek eta CEBEK elkarteak empresarien ordeezkare gisa osatzen dute.

2. Aipatutako hitzarmenaren soldata-berrikuspenaren akta sinatu dute CEBEKK enpresarien ordezkariek eta Negoziazio Batzordean ELA, sindikatuek dituzten ordezkariek, eta horiek aipatutako batzordeko bi aldeetako ordezkarien %50 baino gehiago dira.

3. Aipatutako hitzarmenaren indarraldia 2002ko urtarrilaren 1etik 2003ko abenduaren 31 artekoa da.

*Zuzenbideko oinarriak*

1. Aipatutako Hitzarmen Kolektiboa inskribatu eta argitaratzeko eskumena Langileen Estatutuaren testu bategina onartu zuen martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuko 90.2 artikuluak erabakitzen du, eta artikulu horrek xedatzen duenez, hitzarmenak —erregistratzeko bakarrik— Lan Agintaritzari aurkeztu beharko zaizkio, hori guztia Hitzarmen Kolektiboen Erregistroa sortu eta antolatzeari buruzko Eusko Jaurlaritzaren martxoaren 2ko 39/1981 Dekretuak eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren otsailaren 12ko 44/2002 Dekretuaren 22.1 g) artikuluak —Euskadiko Hitzarmen Kolektiboen Erregistroko Lurralde Atalaren kudeaketa Lurralde Ordezkaritzari ematen dionak— xedatutakoaren ildotik.

2. Aipatutako hitzarmena sinatu dute Negoziazio Batzordeko enpresarien ordezkari gehienek eta ordezkari sozial gehienek; hori dela eta, hartutako akordioak betetzen ditu lehen aipatutako Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren 89.3 artikuluak xedatutako baldintzak.

3. Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren 90.5 artikuluak xedatzen duenez, Lan Agintaritzaren iritziz hitzarmenak indarreko legea hausten badu edo hirugarrenen interesak larriki kaltetu, agintaritza horrek jurisdikzio eskumendunera joko du; eta kasu honetan hirugarrenen interesik kaltetu edota indarreko legea hausten ez denez, hitzarmena erregistratu eta gordailutzen da, eta «Bizkaiko Aldizkari Ofizial»ean argitara ematen da, aipatutako artikuluko 2. eta 3. idatz-zatiekin bat etorriz.

Aipatutako legezko arauak eta oro har aplikatzekoak direnak ikusirik, Bizkaiko Lurralde ordezkariak, zera,

EBATZI DU:

1. Bizkaiko Zur-Industriaren sektorearentzako Hitzarmen Kolektiboa Lurralde Atal honetako Hitzarmen Kolektiboen Erregistroan inskribatzeko agintzea.

## Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social

### DELEGACION TERRITORIAL DE BIZKAIA

Expte.: 42-2003

RESOLUCION de 27 de mayo de 2003, de la Delegada Territorial en Bizkaia del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se resuelve el registro y publicación del Convenio Colectivo para el Sector Industria de la Madera de Bizkaia. Código Convenio número 4801475.

*Antecedentes*

1. Que con fecha 9 de mayo de 2003, ante esta Delegación Territorial de Bizkaia, se ha presentado el texto del Convenio Colectivo para el Sector Industria de la Madera de Bizkaia, suscrita el 9 de mayo de 2003, así como el acta inicial de Constitución de la Mesa Negociadora compuesta por las centrales sindicales ELA, CC.OO., UGT y LAB y la representación empresarial CEBEK y ACEVI.

2. Que el acta de la revisión salarial de dicho convenio ha sido suscrito por los representantes de la patronal CEBEK y ACEVI, y por los representantes sindicales ELA de la Comisión Negociadora, que constituyen más del 50% de ambas representaciones en dicha Comisión.

3. Que la vigencia de dicha Revisión Salarial se establece del 1 de enero de 2002 al 31 de diciembre de 2003.

*Fundamentos de derecho*

1. La competencia para la inscripción y publicación del citado Convenio Colectivo, viene determinada por el Real Decreto Legislativo 1/1995, de 24 de marzo, por el que se aprueba el Texto Refundido del Estatuto de los Trabajadores, conforme a lo dispuesto en su artículo 90.2, que determina que los Convenios deberán ser presentados ante la Autoridad Laboral a los solos efectos de registro, en relación con el Decreto del Gobierno Vasco 39/1981, de 2 de marzo, sobre creación y organización del Registro de los Convenios Colectivos de Trabajo, y la Orden de 3 de noviembre de 1982, que desarrolla el citado Decreto, así como el artículo 22.1 g) del Decreto 44/2002, de 12 de febrero, del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, que atribuye a la Delegación Territorial la facultad de gestionar la Sección Territorial del Registro de Convenios Colectivos de Euskadi.

2. El citado Convenio ha sido suscrito por la mayoría de la representación empresarial y de la representación social en la Comisión Negociadora, por lo que, el acuerdo adoptado reúne los requisitos del artículo 89.3 del Texto Refundido del Estatuto de los Trabajadores citado.

3. El artículo 90.5 del Texto Refundido del Estatuto de los Trabajadores, determina que si la Autoridad Laboral estimase que el Convenio conculca la legalidad vigente o lesiona gravemente el interés de terceros, se dirigirá de oficio a la Jurisdicción competente, y considerando que el presente supuesto no lesiona el interés de terceros ni conculca la legalidad vigente, procede, de conformidad con el apartado 2 y 3 del citado artículo, su registro y depósito, así como disponer su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

Vistos los preceptos legales citados y demás de general aplicación, la Delegada Territorial en Bizkaia,

RESUELVE:

1. Ordenar la inscripción en el Registro de Convenios Colectivos de esta Sección Territorial del Convenio Colectivo del sector Industria de la Madera de Biakaia.

2. Aipatutako Hitzarmen Kolektiboa «Bizkaiko Aldizkari Ofizial»ean argitaratzea.

3. Lurralde Ordezkaritza Honetako Harreman Kolektiboen Atalean gordailutzea.

4. Jakinarazi ebazpen hau alderdiei, eta jakinarazi, halaber, honen aurka badagoela Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantza Zuzendariari gorako errekurtsoa aurkeztea, hilabeteko epean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 114. artikuluan —115. artikuluaren ildotik— xedatutakoarekin bat etorriz —lege hori 4/1999 Legeak aldatu zuen, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren organoen eta egitekoen Egitura finkatzen duen otsailaren 12ko 44/2002 Dekretuaren 16.j) artikuluaren ildotik—.

Bilbon, 2003ko maiatzaren 27an.—Bizkaiko Lurralde Ordezkaria, Karmele Arias Martínez

**ZUR-INDUSTRIAREN BIZKAIKO HITZARMENA (2002-2003 BIURTEKOA)**

**1. artikulua.—*Aplikazio-eremua***

Hitzarmen Kolektibo hau Bizkaia osoan aplikatuko da, eta zur-industriaren Lan-ordenantzan sartzen diren enpresa eta langile guztiak honen eraginpean geratzen dira.

Altzari-merkataritza aplikazio-eremu honetatik baztertuta dago.

**2. artikulua.—*Indarraldia eta iraupena***

Hitzarmen hau sinatzen den egunean hasiko da indarrean, baina ondorio ekonomikoek, ordea, 2002ko urtarrilaren 1erako atzeraeragina izango dute. Hitzarmenaren iraupena bi urtekoa izango da. Beraz, 2003ko abenduaren 31n amaituko da, eta 2003ko urrian aldeek amaitutzat jotzen dutela ulertuko da.

**3. artikulua.—*Baldintza onuragarrienak***

Enpresek ezarritako baldintza onuragarrienei eutsiko zaie, beti ere horiek Hitzarmen honetako espezifikoak baino hobeak badira, oro har. Horrela, langileek ez dute lehen jasotzen zituzten diru-sarrerak baino sarrera txikiagorik jasoko, hitzarmena aplikatzearen ondorioz.

Enpresetan ezarritako produktibitate- eta ordainsari-sistemei beren osotasunean eutsiko zaie, nolanahi ere Hitzarmen honetan itundutako kopurua gutxienez jasoko dena izango dela bermatuta.

Itundutako baldintzak Hitzarmenaren aurretik Legeak hala aginduta, Sindikatu Hitzarmenagatik edo edozein motatako Itunagatik indarrean zeudenekin konpentsa daitezke, baita beste edozein ordainsari ekonomikoren plusak, sariak edo hobariak ere.

**4. artikulua.—*Gutxieneko bermea***

Hitzarmen honek eragindako langile guztientzat, hurrengo gutxieneko bermea ezarriko da urteko, aurreko Hitzarmenaren indarraldian jasotako ordainsarien gainean: itundutako gehikuntza aurreko urteko abenduaren 31n indarrean zegoen ordainsari-taularen gainean aplikatzetik datorren zenbatekoaren %100 aplikatuko da urte bakoitzerako.

**5. artikulua.—*Ordainsariak***

2002. urterako, Hitzarmen honetako eranskinean zehazten den kategoria bakoitzerako soldatak ituntzen dira. Soldatak %4,5 igoko dira 2001. urtekoen gainean.

2003. urterako, soldatak %5,5 igoko dira 2002. urteko ordainsari-taulen gainean.

Ordainsari-sistema bi kontzeptuek osatuta egongo da: Oinarrizko Soldata eta Hitzarmeneko Plusa. Oinarrizko Soldata egutegiko egun bakoitzarengatik jasoko da; Hitzarmeneko Plusa, berriz, benetan lan egindako egun bakoitzarengatik eta ordaintzeko eskubidea ematen duten justifikatutako hutsengatik sortuko da.

2. Disponer la publicación del citado Convenio Colectivo en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

3. Proceder a su correspondiente depósito en la Sección de Relaciones Colectivas de esta Delegación Territorial.

4. Notificar la presente Resolución a las partes, haciendo saber que contra la misma, podrán interponer recurso de alzada ante el Director de Trabajo y Seguridad Social del Gobierno Vasco, en el plazo de un mes, de conformidad con lo establecido en el artículo 114, en relación con el artículo 115 de la Ley, de 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y de Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999, en relación con el artículo 16.j) del Decreto 44/2002, de 12 de febrero, por el que se establece la Estructura Orgánica y Funcional del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social.

En Bilbao, a 27 de mayo de 2003.—La Delegada Territorial en Bizkaia, Karmele Arias Martínez

**CONVENIO PROVINCIAL DE LA INDUSTRIA DE LA MADERA DE BIZKAIA (AÑOS 2002-2003)**

**Artículo 1.—*Ambito de aplicación***

El presente Convenio Colectivo será de aplicación en toda Bizkaia, afectando a todas las empresas y trabajadores incluidos o que puedan ordenarse en la Ordenanza laboral para la industria de la madera.

Queda excluido el comercio del mueble de este ámbito de aplicación.

**Artículo 2.—*Vigencia y duración***

El presente Convenio entrará en vigor en la fecha de su firma, si bien sus efectos económicos se retrotraerán al 1 de enero de 2002. La duración del mismo será de dos años, finalizando el 31 de diciembre de 2003, considerándose denunciado por las partes en octubre de 2003.

**Artículo 3.—*Condiciones más beneficiosas***

Se mantendrán las condiciones más ventajosas implantadas por las empresas, en cuanto aquellas superen, en conjunto, las específicas de este Convenio, de tal forma que ningún trabajador pueda verse perjudicado por la percepción de menores ingresos por su aplicación.

Los sistemas de productividad y retributivos establecidos en las empresas se mantendrán en toda su extensión, garantizando, en todo caso, una percepción mínima a la pactada en el presente Convenio.

Las condiciones pactadas son compensables en su totalidad con las que rigieran con anterioridad al Convenio por imperativo Legal, Convenio Sindical o Pacto de cualquier clase, siendo compensables todos los pluses, premios o primas de cualquier otra retribución económica.

**Artículo 4.—*Garantía mínima***

Para todos los trabajadores afectados por el presente Convenio se establece la siguiente garantía mínima anual sobre los salarios percibidos durante la vigencia del anterior Convenio, que consistirá en aplicar para cada año un 100% de la cuantía resultante de aplicar el incremento pactado sobre la tabla salarial vigente al 31 de diciembre del año anterior.

**Artículo 5.—*Retribuciones***

Para el año 2002 se pactan los salarios que para cada una de las categorías se especifican en el anexo del presente Convenio, que aumentan un 4,5% sobre 2001.

Para el año 2003 los salarios se incrementarán en un 5,5%, sobre las tablas salariales del año 2002.

El sistema retributivo estará constituido por dos conceptos: Sueldo Base y Plus Convenio. El Sueldo Base se percibirá por día natural y el Plus Convenio se devengará por día realmente trabajado y las faltas justificadas con derecho a retribución.

Erantsitako ordainsari-taulan, Plusa asteko bost lanegunetarako kalkulatuta agertuko da, larunbatari dagokion zatia zenbatekoan proportzionalki banatu dela.

Hitzarmen honetako soldatak ordaintzeko, enpresak edozein unetan eskatu ahal izango du gutxieneko jarduerari (60 puntu Bedaux edo ezarritako antzeko sistemen puntu baliokideak) dagokion lanetekina.

**6. artikulua.—*Aparteko orduak***

Legeak hala aginduta aparteko orduen izaera duten orduek %80ko errekargua izango dute lanegunetan egin badira; igandeetan edo Egutegi Ofizialeko jai-egunetan egin badira, berriz, errekargua %160koa izango da.

Enpresaren barruan etxebizitzarik ez duten zaintzaileek ezin izango dute astean 72 ordutan baino gehiagotan lan egin, soberan egindako ordu bakoitzeko, egitekotan, Oinarrizko Soldata eta antzinatasunaren gaineko %75 gehituko bailitzateke.

Aparteko orduak egitea galarazten da, mantentze-lanetarako edo konponketa edo premiazko arrazoien kasuan izan ezik.

Langileak bere ohiko ordutegian hitzartutako orduak baino gehiago egiten dituenean, aparteko ordu horiek kobratu ahal izango ditu ordainsari-taulan hitzartutako balioan edo ordu horiek osatzen dituzten lanegunak opor-egun bihurtu, enpresaburuarekin horrelakorik adostu ondoren.

Bi aldeek arlo honi buruz «EHAA»n 1999-2-2an argitaratutako Konfederazio Arteko Akordioa onartu dute.

**7. artikulua.—*Enpresako langileak ez diren pertsonek orduak egitea galarazten da***

Gainera, enpresek langile finkotzat hartu beharko dute hitzarmen hau sinatzen denetik elkarren jarraiko 2 urtetan aldi baterako langile gisa dagoen edozein pertsona. Hitzarmenaren puntu hori ez zaie aplikatuko errematatzaile eta zerrariei, ezta Gizarte Segurantzaren hobaria duten aldi baterako kontratuak sustatzen dituen Legeriaren babesean kontratatutako langileei ere.

**8. artikulua.—*Dietak***

Enpresak aginduta, 2002. urtean lantokia dagoen tokitik mugitu eta beste herri batzuetara joan behar diren langileek 35,80 euro jasoko dituzte lehenengo 2 egunetan dieta-kontzeptuengatik; gainerako egunetan 34,32 euro jasoko dituzte, joan-etorria dela eta, etxetik kanpo bazkaldu, afaldu, lo egin eta gosaldu behar badute. Etxetik kanpo bazkaldu edo afaldu behar badute bakarrik, 8,66 euro jasoko dituzte otordu bakoitzeko, lo egin eta gosaltzeko 16,70 euroko kopurua ezartzen dela. Balio horiek gehikuntza ekonomikoa izan dute, 2001. urteko balioekin alderatuta. Gehikuntza horren kopurua 2001erako hitzartutako ordainsari-gehikuntza eta 2002rako hitzartutakoa batera aplikatzetik datorren zenbatekoaren baliokidea da.

2.003. urterako, kontzeptu horregatik jaso beharreko kopuruak honako hauek izango dira: 37,77 euro lehenengo 2 egunetan, eta 36,21 euro gainerako egunetan, joan-etorria dela eta, etxetik kanpo bazkaldu, afaldu, lo egin eta gosaldu behar badute. Etxetik kanpo bazkaldu edo afaldu behar badute bakarrik, 9,14 euro jasoko dituzte otordu bakoitzeko, lo egin eta gosaltzeko 17,62 euro-ko kopurua ezartzen dela. Balio horiek gehikuntza ekonomikoa izan dute, 2002. urteko balioekin alderatuta. Gehikuntza horren kopurua 2003. urterako ordainsari-gehikuntzetarako hitzartutako zenbatekoaren berdina da.

Enpresek hautatu ahal izango dute aipatutako dieten ordez, gastuak ordaindu nahi dituzten ala ez.

Egun bat baino gehiago hartuko dituzten joan-etorrietan, enpresek erabiliko diren dieta guztien dirua emango diete langileei.

**9. artikulua.—*Antzinatasuna***

Langileentzako antzinatasun-osagarria %5ekoa izango da bost urteko epe bakoitzeko eta Hitzarmen honetako lehenengo zutabearen Oinarrizko Soldataren gainean aplikatuko da, mugarik gabe.

En la tabla de salarios anexa, el Plus figurará calculado para cinco días de trabajo semanales, habiéndose prorrateado en su importe la parte correspondiente al sábado.

Por el abono de los salarios del presente Convenio, la empresa podrá exigir en cualquier momento un rendimiento de trabajo correspondiente a la actividad mínima (60 puntos Bedaux o equivalentes en sistemas similares establecidos).

**Artículo 6.—*Horas extraordinarias***

Las horas que tengan la condición de extraordinarias por imperativo legal, se abonarán con el 80% de recargo las trabajadas en día laborable, y con el 160% las correspondientes a Domingos y Festivos del Calendario Oficial.

Los guardas vigilantes que no disponen de vivienda dentro de la empresa, no podrán trabajar más de 72 horas semanales a razón del 75% de incremento sobre el Salario Base y la antigüedad, si la hubiera, por hora excedida.

Se prohíbe la realización de horas extraordinarias, salvo para mantenimiento y en los casos de reparación o razones de urgencia.

Cuando el trabajador realice horas por encima de las estipuladas en su horario habitual, podrá, previo acuerdo con el empresario, cobrarlas, con el valor estipulado en la tabla salarial, o disfrutarlas por días equivalentes.

Ambas partes asumen el Acuerdo Interconfederal sobre esta materia publicado en el «BOPV», de 2-2-1999.

**Artículo 7.—*Se prohíbe la realización de horas por personal ajeno a la plantilla de la empresa***

Además estarán obligados a considerar fijos de plantilla, a todo trabajador que esté como eventual durante 2 años continuados a partir de la firma del presente convenio. Esta estipulación no será de aplicación a los rematantes y aserradores, ni aquellos trabajadores cuya contratación se realice al amparo de la Legislación que fomente los contratos temporales con bonificación de la Seguridad social.

**Artículo 8.—*Dietas***

Durante el año 2002 los trabajadores que por orden de la empresa deban efectuar desplazamientos a localidades distintas a las que radique su centro de trabajo, percibirán por el concepto de dietas la cantidad de 35,80 euros durante los 2 primeros días, y de 34,32 euros por los restantes cuando el desplazamiento les obligue a comer, cenar y pernoctar y desayunar fuera del domicilio. Cuando únicamente les obligue a comer o cenar fuera del domicilio, percibirán 8,66 euros por cada comida, fijándose para la pernoctación y desayuno la cantidad de 16,70 euros. Estos valores han sufrido un incremento económico, con respecto a los del año 2001, equivalente a la aplicación del incremento salarial pactado para el año 2001 más el incremento salarial pactado para el año 2002.

Para el año 2003 las cantidades a percibir por este concepto serán de 37,77 euros durante los 2 primeros días, y de 36,21 euros por los restantes cuando el desplazamiento les obligue a comer, cenar y pernoctar y desayunar fuera del domicilio. Cuando únicamente les obligue a comer o cenar fuera del domicilio, percibirán 9,14 euros por cada comida, fijándose para la pernoctación y desayuno la cantidad de 17,62 euros. Estos valores han experimentado un incremento económico, con respecto a los del año 2002, igual al pactado para los incrementos salariales para el año 2003.

Las citadas dietas pueden ser sustituidas por el abono de los gastos, a elección de las empresas.

En los desplazamientos superiores al día, las empresas facilitarán a los trabajadores el dinero necesario por el total de las dietas que vaya a utilizar.

**Artículo 9.—*Antigüedad***

El complemento de antigüedad para el personal, se fija en quinquenios del 5% que se aplicará sobre el Salario Base de la primera columna del presente Convenio sin limitación.

**10. artikulua.—*Tresna-higadura***

2002. urtean, jarduera gauzatzeko beren tresnak erabiltzen dituzten langileek 2,33 euro jasoko dituzte astean, ofizialak izatekotan, eta 1,53 euro, aprendizak badira, tresna- higadurako kontzeptuarengatik. 2003. urtean kopuruak aldatuko dira, ofizialei 2,46 euro eta aprendizei 1,61 euro emango zaizkiela kontzeptu beragatik. 2002. urtean, jarduera gauzatzeko beren tresna elektrikoak erabiltzen dituzten langileek 48,08 euro jasoko dituzte, tresna-higadurako kontzeptuarengatik; 2003. urtean, berriz, kopurua 50,72 euro-koa izango da.

**11. artikulua.—*Lanaldia***

2002. urterako lanaldia 40 ordukoa izango da astean, urtean 1.748 ordu egin daitezkeela, gehienez; 2003. urterakoa, aldiz, 40 ordukoa izango da astean, urtean 1.738 ordu egin ahal izango direla, gehienez. Bi urteetan lanaldia astelehenetik ostiralera banatuko da, larunbatetan lan egiten duen enpresa nagusi baten industria laguntzaileetako langileei dagokienean izan ezik

Errematatzaile eta zerrarien jarduera garatzean batera gertatzen diren ezaugarri bereziak kontuan hartuta eta enpresa bakoitzean aldeek bestelako akordioa lortu ezean, talde horren lanaldia astelehenetik larunbatera banatuta egongo da, langileek azken eguneko arratsaldea libre izango dutela.

Hala ere, zerratzeko barneko lanari lotutako jardueretarako, astelehenetik ostiralerako lanaldia, hots, arrunta, egongo da indarrean.

**12. artikulua.—*Kanpoaldeko lanak***

Langileak enpresaren helbide soziala edo tailerra dagoen herrigunearen mugetatik kanpo lan egin behar duenean, hurrengo baldintzak egongo dira indarrean:

a) Beti ere lanaldia lan egin behar den tokian eta ohiko orduan hasiko da, enpresa bakoitzaren lan-egutegiaren arabera, bestelakorik adostu ezean. Beraz, langilea leku horretan agertu beharko da, aurretik enpresaren helbide sozialetik igaro behar ez dela.
b) Joan-etorriko denbora enpresaren ohiko lantokira joateko erabiltzen duena baino luzeagoa bada, denbora-gaindikin hori lanaldi gisa zenbatuko da ala soldatan proportzionalki ordainduko da, bi aldeek horrela adostekotan.
c) Baldintza horiek ez zaie aplikatuko lan zehatz bat egiteko kontratatutako langileei, beren lantokia lana dagoen tokian kokatuta egongo baita.
d) Joan-etorri horiengatik sortutako gastuak enpresaren konturakoak izango dira.
e) 2002. urtean, langileak bere ibilgailua erabiltzen duenean lanorduen barruan mugitzeko eta enpresako lanak egiteko, 0,19 euro-ko kilometro-plusa jasoko du, egindako kilometro bakoitzeko. Balio horiek gehikuntza ekonomikoa izan dute, 2001. urteko balioekin alderatuta. Gehikuntza horren kopurua 2001erako hitzartutako ordainsari-gehikuntza eta 2002rako hitzartutakoa batera aplikatzetik datorren zenbatekoaren baliokidea da.

2003. urterako, kilometro-plusa 0,20 euro-koa izango da, egindako kilometro bakoitzeko. Balio horiek gehikuntza ekonomikoa izan dute, 2002. urteko balioekin alderatuta. Gehikuntza horren kopurua 2003. urterako ordainsari-gehikuntzetarako hitzartutako zenbatekoaren berdina da.

**13. artikulua.—*Aparteko haborokinak***

Martxoaren 17an, uztailaren 15ean eta abenduaren 22an ordainduko diren aparteko haborokinak ezartzen dira, Hitzarmen honetako eranskinean ezarritako kopuruaren arabera.

Aipatutako haborokinei antzinatasuna dela eta, langile bakoitzari dagokion kopurua gehituko zaie, uztail eta abenduaren 30 egunak eta martxoaren egunak kontuan hartuta. Hala ere, azken aparteko haborokin hori aurreko urtean lan egindako egunen kopuruarekiko proportzioan eta ordainketa-egunean indarrean dagoen soldataren arabera ordainduko da.

**Artículo 10.—*Desgaste de herramientas***

Durante el año 2002 los trabajadores que para el desarrollo de su actividad utilicen herramientas propias, percibirán por el concepto de desgaste de herramienta la cantidad de 2,33 euros semanales, para los oficiales, y 1,53 euros semanales para los aprendices. Para el año 2003 estas cantidades serán de 2,46 euros para los oficiales y de1,61 euros para los aprendices. Durante el año 2002 los trabajadores que para el desarrollo de su actividad utilicen herramientas eléctricas propias, percibirán por el concepto de desgaste de herramienta la cantidad de 48,08 euros. Para el año 2003, esta cantidad será de 50,72 euros.

**Artículo 11.—*Jornada***

La jornada de trabajo para el año 2002 será de 40 horas semanales y con un máximo de 1.748 horas anuales, y para el año 2003 será de 40 horas semanales, con un máximo de 1.738 horas anuales. En ambos años la jornada será distribuida de lunes a viernes, con excepción del personal perteneciente a industrias auxiliares de otra principal, cuando esta trabaje los sábados.

El grupo de rematantes y aserradores, en atención a las especiales características que coinciden en el desarrollo de su actividad y salvo acuerdo entre las partes en cada empresa, tendrán la jornada distribuida de lunes a sábados, librando las tardes del precitado día.

No obstante lo anterior, para actividades relacionadas con el trabajo interno de serrería, regirá la jornada normal de lunes a viernes.

**Artículo 12.—*Trabajos en el exterior***

Cuando el trabajador preste sus servicios fuera de los límites del casco de la población donde está enclavado el domicilio social o el taller de la empresa, regirán las siguientes condiciones:

a) En todo caso, la jornada laboral se iniciará en el tajo y a la hora habitual, según el calendario laboral de cada empresa, salvo acuerdo en contrario, presentándose el trabajador en dicho tajo, sin necesidad de pasar por el domicilio de la empresa.
b) Si el tiempo de desplazamiento fuera superior al que habitualmente invierte para acudir al centro de trabajo normal de la empresa, dicho exceso de tiempo se computará como jornada, o se abonará de mutuo acuerdo a prorrata del salario.
c) Estas condiciones no se aplicarán a aquellos operarios a los que se les haya contratado para una obra determinada, pues su centro de trabajo será el lugar donde se halle ubicada dicha obra.
d) Los gastos ocasionados por estos desplazamientos correrán a cargo de la empresa.
e) Durante el año 2002 cuando el trabajador utilice su propio vehículo para desplazarse, dentro de las horas de trabajo, y para realizar labores de la empresa, cobrará un plus de kilometraje de 0,19 euros por kilómetro recorrido. Estos valores han sufrido un incremento económico, con respecto a los del año 2001, equivalente a la aplicación del incremento salarial pactado para el año 2001 más el incremento salarial pactado para el año 2002.

Para el año 2003 esta cantidad será de 0,20 euros. Estos valores han experimentado un incremento económico, con respecto a los del año 2002, igual al pactado para los incrementos salariales para el año 2003.

**Artículo 13.—*Gratificaciones extraordinarias***

Se establecen gratificaciones extraordinarias, que se abonarán el 17 de marzo, el 15 de julio y el 22 de diciembre, según la cantidad fijada en el anexo del presente Convenio.

A las citadas gratificaciones se les adicionará la cantidad que por antigüedad le corresponda a cada trabajador, en cuantía de 30 días en julio y diciembre y días en marzo, pero esta última se abonará en proporción al número de días trabajados el año anterior y con el salario vigente en la fecha de pago.

**14. artikulua.—*Oporrak***

Opor-egunak egutegiko 30 egun izango dira gehienez, lanegunean zenbatzen hasiko direla.

Bi aldeek bestelakorik adostu ezean, oporrak txandakako alditan hartuko dira ekainaren 30etik irailaren 30era bitartean, biak barne. Ahal bada, oporrak bi hilen 15. egunen artean hartzen saiatu behar da. Antzinatasunaren irizpidea ez da kontuan hartuko lehentasun edo garai kontuetarako. Oporrak hartu baino 3 hil lehenago jasoko diren egiazko soldaten batezbestekoaren bidez ordainduko dira.

Oporrak direla eta, enpresek lantokiak ixten badituzte, langileek aldi berean hartu beharko dituzte oporrak.

Ekainetik irailerako denboralditik kanpo dago errematatzaile eta zerrarien taldea.

**15. artikulua.—*Ordaindutako lizentziak***

Behar besteko aurrerapenaz abisatu eta behar bezala arrazoitu ondoren, langilea lanetik kanpo egon ahal izango da ondoren zehaztutako arrazoiengatik eta adierazitako denboran, soldata jasotzeko eskubideari eutsiko diola:

a) Ezkontza: egutegiko 15 egun.
b) Emazteak umea izaten badu: egutegiko 3 egun, horietatik 1, gutxienez, laneguna izango dela.
c) Ezkonlagunak, seme-alabek, bi ezkontideen gurasoek, ilobek, aitona-amonek edo neba-arrebek gaixotasun larria badute edo ospitaleratu badira: egutegiko 2 egun. 2 egun horien ordez, 4 egun erdiak hartu ahal izango dira ezkonlagunak edo seme-alabek gaixotasun larria badute edo ospitaleratu badira.
d) Gurasoak, seme-alabak edo neba-arrebak hiltzen badira: egutegiko 3 egun.
e) Ezkonlaguna hiltzen bada: egutegiko 8 egun.
f) Aitona-amonak, ilobak eta koinatu-koinatak hiltzen badira: egutegiko 3 egun.
g) Neba-arrebak, koinatu-koinatak edo seme-alabak ezkontzen badira: egutegiko egun 1.
h) Ohiko bizilekutik lekualdatzea: egutegiko egun 1.
i) Lanbide-titulua eskuratzeko ikasketak egiten dituzten langileak kontratatuta dituzten enpresek azterketetara joateko behar beste baimen emango diete.
j) Langileek ordaindutako baimena izango dute familiako medikuarengana joateko behar besteko denboran, beti ere justifikatzen badute eta beragana joateko benetako arrazoia badago.

Horretarako, langileak egin beharreko lekualdaketa 150 kilometrotik gorakoa bada, lizentzia horiek egutegiko bi egun gehiagoz luzatuko dira.

**16. artikulua.—*Lan toxikoak, neketsuak eta arriskutsuak***

Hitzarmen honek eragindako enpresak eta beren langileak Prebentzio eta Lan-osasunari buruzko Lege berriaren artikuluetan bildutako eskubide eta betebeharren arloan indarrean dauden legezko xedapenei beren-beregi lotuko zaizkie.

Enpresek eta Enpresa edo Ordezkari batzordeak ikuskapena egiteko eskatuko diote Lan Ordezkaritzari, istripu edo toxikotasun-arriskua egotekotan; arrisku hori dagoela egiaztatzekotan, zein mailatakoa den adierazi beharko da. Ikuskapenaren emaitza bi aldeei jakinaraziko zaie. Arazoren bat egotekotan, enpresak konpondu beharko du.

Makina eta instalazioetan istripuei aurrea hartu eta saihesteko behar diren baliabideak jarriko dira, Hitzarmen honek eragindako langileen jarduerak garatzen diren lantoki eta lanpostuen higiene- eta segurtasun-baldintza onenak lortzeko asmoz.

**17. artikulua.—*Gaueko lanak***

22:00etatik 6:00etara lan egiten duten langileek oinarrizko soldataren %25eko ordainsari-osagarria jasoko dute, gaueko lanaren kontzeptuarengatik, lan egindako ordu bakoitzeko.

**Artículo 14.—*Vacaciones***

Las vacaciones tendrán una duración máxima de 30 días naturales, comenzando su disfrute en día no festivo.

Se disfrutarán en turnos rotativos, salvo acuerdo entre partes, entre el 30 de junio y el 30 de septiembre, ambos inclusive, y preferentemente entre el 15 y 15 de ambos meses, suprimiéndose el criterio de la antigüedad para preferencia o época. Serán retribuidas por el promedio de salarios reales percibidos en los 3 meses anteriores a su disfrute.

En el caso de cierre de las empresas por vacaciones será obligación de los trabajadores coger las conjuntamente.

Se exceptúa del período de junio a septiembre al grupo de rematantes y aserraderos.

**Artículo 15.—*Licencias retribuidas***

El trabajador, avisando con la suficiente antelación y justificándose adecuadamente, podrá ausentarse del trabajo con derecho a remuneración por alguno de los motivos y por el tiempo que a continuación se detalla:

a) Por 15 días naturales en caso de matrimonio.
b) Por alumbramiento de la esposa, 3 días naturales, de los cuales al menos 1 será laborable.
c) Por enfermedad grave u hospitalización de cónyuge, hijos, padre o madre de uno u otro cónyuge, nietos, abuelos o hermanos: 2 días naturales, que podrán sustituirse por 4 medios días en los casos de enfermedad grave u hospitalización del cónyuge o hijos.
d) Por muerte de los padres, hijos o hermanos: 3 días naturales.
e) Por muerte del cónyuge: 8 días naturales.
f) Por muerte de los abuelos, nietos y hermanos políticos: 3 días naturales.
g) Por matrimonio de hermanos, hermanos políticos o hijos: 1 día natural.
h) Por traslado del domicilio habitual: 1 día natural.
i) Las empresas que tengan a su servicio trabajadores que realicen estudios para la obtención del título profesional, otorgarán a los mismos los permisos necesarios para que puedan concurrir a los exámenes.
j) Los trabajadores tendrán licencia retribuida durante el tiempo estrictamente necesario en el que acudan a su médico de cabecera, siempre que lo justifiquen y que exista razón fundada para acudir al mismo.

Cuando el trabajador necesite realizar un desplazamiento al efecto, superior a 150 kilómetros, estas licencias se ampliarán en dos días naturales más.

**Artículo 16.—*Trabajos tóxicos, penosos y peligrosos***

Todas las empresas y sus trabajadores afectados por el presente Convenio se someten expresamente a las disposiciones legales vigentes en lo relativo a derechos y obligaciones recogidas en el articulado de la nueva Ley de Prevención y Salud Laboral.

Las empresas y el Comité de empresa o Delegados, solicitarán a la Delegación de Trabajo una inspección cuando existiera peligro de accidente o toxicidad y en que grado si lo hubiera. El resultado de la inspección se comunicará a ambas partes. De existir algún tipo de anomalía la empresa quedará obligada a su resolución.

Se dotará a las máquinas e instalaciones de los medios exigidos para la prevención y evitación de accidentes, a fin de lograr las mejores condiciones de higiene y seguridad de los centros y puestos de trabajo en que se desarrollen sus actividades los trabajadores afectados por el presente Convenio.

**Artículo 17.—*Trabajos nocturnos***

Los trabajadores que presten sus servicios entre las 22 horas y las 6 horas, percibirán un complemento salarial por nocturnidad del 25% del salario base por cada una de las horas trabajadas.

**18. artikulua.—*Gizarte Segurantzaren kuotak eta PFEZ***

Langileek Gizarte Segurantzaren kuotak eta Pertsona Fiskoen Errentaren gaineko Zerga ordainduko dituzte, indarreko xedapenen arabera.

Enpresek nominaren barruan sartuko dituzte ordainsari-kontzeptu eta kalte-ordain guztiak, soldataren osotasunagatik kotizatuko dela.

**19. artikulua.—*Erretiroa***

Enpresan 15 urteko antzinatasuna duten langileek ondoren zehaztutako haborokinak jasoko dituzte, adierazitako adinekin erretiroa hartzen badute:

— 60 urterekin: 12 hileko soldata.
— 61 urterekin: 10 hileko soldata.
— 62 urterekin: 8 hileko soldata.
— 63 urterekin: 6 hileko soldata.
— 64 urterekin: 3 hileko soldata.
— 65 urterekin: hil 1eko soldata.

Aurretik aipatutako abantailei heldu nahi dien langileak lana utziko duela jakinarazi beharko du, utzi baino 3 hil lehenago. Aurreikusitako kalte-ordainen ordainketa honela egingo da: erretiroa hartzeko unean 3 hileko soldata ordainduko da eta horren eta jaso behar den kopuruaren arteko aldea hil bakoitzeko hileko soldata bat ordainduta burutuko da.

Artikulu hau indargabetuko da, legeak hala aginduta erretiroa hartzeko gutxieneko adina aldatzen denean. Kasu horretan, negoziazio berriak egongo dira, bidezkoak diren ordainak ezartzeko.

Halaber eta erretiroa hartzeari dagokionean, Negoziazio Batzordeak erretiroa hartzeko adina 64 urtera aurreratzeari buruzko uztailaren 17ko 1.194/1985 Errege Dekretuan ezarritakoa gogorarazi eta aplikatzea gomendatu nahi du, beti ere erretiroa hartu duen langilearen ordez, gutxienez urtebeteko kontratua duen langilea jartzen bada. Erretiroa modu horretan hartzen duen pertsonak berari dagokion pentsioaren %100 jasoko du, inolako murrizketarik gabe, 65 urterekin erretiroa hartu izan balu bezala.

Azken atal horrek ez du izaera loteslerik.

**20. artikulua.—*Osasun-azterketa***

Beren lan-istripuetarako ugazaben mutualitateen bidez eta lanorduen barruan, enpresek osasun-azterketa prebentiboa egin beharko diete langileei urtero eta emaitzen idatzizko txostena emango diete guztiei.

Azterketa horrek hurrengoak hartuko ditu barnean, gutxienez:

— Odola, gernua, ikusmena, entzumena eta tentsioa.

45 urtetik gorako langileei elektrokardiograma bana egingo zaie.

**21. artikulua.—*Gaixotasun eta istripuengatiko sariak***

Langilea gaixorik egotekotan, lanerako ezintasun iragankorreko egoeran dagoen bitartean, Hitzarmenean ezarritako aparteko haborokin guztiei eutsiko zaie.

Laneko istripua edota lanbide-gaixotasunaren kasuan, enpresek hitzarmeneko tauletan lanaldi arrunterako ezarritako ordainsari-kopuruen saria %100eraino osatuko dute, bajaren 15. egunaren aurretik eta 6 hilez, gehienez.

**22. artikulua.—*Minusbaliotasunen bat duten langileek***

Ohiko lanposturako Ezintasun Iraunkor Osoa duten langileei lanean benetan jarduteko zereginak emango zaizkie, beti ere haien minusbaliotasun fisikorako lanpostu egokiren bat badago.

**23. artikulua.—*Laneko arropa***

Hitzarmen honek eragindako langile guztiei enpresak beren jarduera gauzatzeko laneko arropa egokia emango die. Izan ere, langile bakoitzari derrigorrean jantzi beharreko bi jantzi emango zaizkio urtean, eta inguruabarrek hala agintzen dutenean, botak, eskularruak eta kaskoa ere bai.

**Artículo 18.—*Cuotas de la Seguridad Social e IRPF***

Las cuotas de la Seguridad Social y el impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas serán abonadas por los trabajadores conforme a las disposiciones vigentes.

Las empresas incluirán en nómina todos los conceptos retributivos e indemnizaciones cotizando por la integridad del salario.

**Artículo 19.—*Jubilación***

Los trabajadores con 15 años de antigüedad en la empresa que se jubilen a la edad que a continuación se señala, percibirán las gratificaciones que se detallan:

— A los 60 años: 12 mensualidades.
— A los 61 años: 10 mensualidades.
— A los 62 años: 8 mensualidades.
— A los 63 años: 6 mensualidades.
— A los 64 años: 3 mensualidades.
— A los 65 años: 1 mensualidad.

El trabajador que desee acogerse a los beneficios anteriormente anunciados, deberá pre-avisar su cese con 3 meses de antelación. El abono de las indemnizaciones previstas se efectuará mediante el pago de 3 mensualidades en el momento de la jubilación y la diferencia existente a razón de una mensualidad por mes.

El presente artículo quedará sin efecto cuando la edad mínima de jubilación sea modificada por imperativo legal, indicándose nuevas negociaciones para establecer las contra prestaciones que procedan.

Asimismo y en lo que se refiere al tema de la jubilación, la Comisión Negociadora recuerda a título informativo y recomienda la aplicación prevista en el Real Decreto 1.194/1985, de 17 de julio, sobre anticipación de la edad de jubilación a los 64 años, siempre que se sustituya al jubilado por otro trabajador con un contrato de duración mínima de un año. El así jubilado percibirá el 100% de la pensión que le corresponda, sin deducción alguna, como si hubiera cumplido 65 años.

Se aclara el carácter no vinculante de este último apartado.

**Artículo 20.—*Reconocimiento médico***

Las Empresas deberán, a través de sus Mutuas Patronales de Accidentes de Trabajo y dentro de las horas laborables, pasar anualmente a todos sus trabajadores una revisión médica preventiva, con informe escrito a todos sus trabajadores de los resultados.

Este reconocimiento comprenderá como mínimo:

— Sangre, orina, vista, oído y tensión.

A los trabajadores mayores de 45 años se les realizará un Electro-Cardiograma.

**Artículo 21.—*Prestaciones por enfermedad y accidente***

En caso de enfermedad del trabajador y mientras se encuentre en situación de incapacidad laboral transitoria, se respetará la totalidad de las pagas extraordinarias que se establecen en el Convenio.

En caso de accidente de trabajo y/o enfermedad profesional, las empresas complementarán la prestación hasta el 100% de las percepciones salariales que se fijan en las tablas del convenio para la jornada ordinaria, a partir del día 15 de la baja y con un máximo de 6 meses.

**Artículo 22.—*Personal con capacidad disminuida***

A los trabajadores afectados declarados como de Invalidez Permanente Total para su puesto de trabajo habitual, se les dará ocupación efectiva, siempre y cuando exista puesto de trabajo adecuado a su disminución física.

**Artículo 23.—*Ropa de trabajo***

A todo el personal afectado por el presente Convenio le será facilitada por la empresa la ropa de trabajo adecuada para el desarrollo de su actividad, que consistirá en dos prendas al año de obligatoria utilización, y botas, guantes y casco cuando las circunstancias lo requieran.

**24. artikulua.—*Txandakako lana***

Txandaka lan egiten duten langileek 20 euro-ko hobaria jasoko dute lan egindako larunbat, igande eta jai-egun bakoitzeko, beti ere egun horiek aparteko ordu gisa ordaintzen ez badira.

**25. artikulua.—*Atsedenaldia***

Lanaldi jarraitua egiteagatik bitarteko atsedenaldia, «ogitartekoa hartzekoa» izenekoa, egiteko eskubidea duten langileek indarreko legezko xedapen aplikagarriek ezarritako denbora eta baldintzak izango dituzte.

**26. artikulua.—*Arrazoi sindikalengatiko eszedentziak***

Zentral sindikal baten toki, probintzi edo estatuko gobernu-organoetan sindikatuko kargua burutu edo burutzeko deitu duten langileak nahitaezko eszedentzia hartzeko eskubidea izango du, karguak irauten duen bitartean.

Langileak zein kargutarako hautatu duten agertzen duen ziurtagiria aurkeztuko dio enpresari eta lanpostua eszedentziak irauten duen bitartean gordeko zaio.

Enpresak bitarteko langileak kontratatu ahal izango ditu, lanpostu hutsak betetzeko. Era berean, eszedentzian dagoen ordezkari sindikalak lanean berriro hasiko dela jakinarazi beharko dio enpresari, hilabeteko aurrerapenaz.

**27. artikulua.—*Elebitasuna***

Iragarki-oholean argitaratutako Zuzendaritzako abisu eta ohar guztiak euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira, enpresako langileek hala eskatzen duten guztietan.

**28. artikulua.—*Heriotza edo ezintasunagatiko kalte-ordaina***

Hitzarmen honek eragindako langile guztiek hurrengo diru-kopuruak jasotzeko eskubidea izango dituzte, ondoren adierazitako kasuetan egotekotan:

— 33.050,60 euro, istripua dela-eta hiltzen badira.
— 33.050,60 euro, istripua dela-eta erabateko ezintasun iraunkorra badute.
— 33.050,60 euro, istripua dela-eta ezintasun iraunkor osoa badute.

Kalte-ordain horiek Hitzarmen hau argitaratu eta hurrengo hilaren aurretik aplikatuko dira, behar den polizan ezarritako baldintzetan eta moduan.

**29. artikulua.—*Aurreabisu-epeak***

Lana borondatez utzi nahi duten langileek enpresari jakinarazi beharko diote, hurrengo aurreabisu-epeak beteta:

a) Tituludun langileak: hil 1.
b) Gainerako langileak: 15 egun.

Langileak aurreabisua adierazitako aurrerapenaz jakinarazi ezean, enpresak hori ematen atzeratutako egun bakoitzarengatik, egun bateko soldataren zenbatekoa kentzeko eskubidea izango du langilearen likidaziotik.

Enpresak abisua aurrerapen horrekin jaso badu, aurreabisuepea amaitzean likidazioa eman beharko du.

Enpresak hori egin ezean, langileak likidazioa ordaintzen atzeratutako egun bakoitzarengatik, egun bateko soldataren zenbatekoa kobratzeko eskubidea izango du, gehieneko epea aurreabisuepearen egunen kopurua dela. Langileak aurreabisua 7 eguneko aurrerapenaz, gutxienez, jakinarazi ezean, aipatutako beharra ez da egongo eta ondorioz, langileak ez du eskubide hori izango.

**30. artikulua.—*Ordezko zuzenbidea***

Aurreikusi gabeko kasuetan, 1969ko uztailaren 28ko Zur-industriarako Lan-ordenantzan eta gainerako xedapen orokorretan ezarritakoa aplikatuko da. Aipatutako ordenantzaren testua Hitzarmenean idatzita dago.

**Artículo 24.—*Trabajo a turnos***

Los trabajadores que trabajen a turnos percibirán una prima de 20 euros por cada sábado, domingo y festivo que les toque trabajar, siempre y cuando no se paguen como horas extras.

**Artículo 25.—*Tiempo de descanso***

Los trabajadores que en atención a su jornada continuada tengan derecho a un descanso intermedio, denominado de bocadillo, se les concederá la extensión y condiciones establecidas por las disposiciones legales vigentes aplicables.

**Artículo 26.—*Excedencias por motivos sindicales***

El trabajador que sea llamado a ejercer o que ejerza un cargo sindical en los órganos de gobierno local, provincial o nacional, de una central sindical, tendrá derecho a una excedencia forzosa por el tiempo que dure dicho cargo.

